

***Oinarrizko aljebra* izeneko Moodle ikastaroaren
segurtasun-kopian gordetako baliabide eta jarduerak**

Sarrera

Oinarrizko_algebra_dbh2_segurkop.mbz izeneko fitxategian (Moodle plataformako *Oinarrizko algebra* ikastaroko segurtasun-kopia) gorde dira Hezkuntza Ordezkaritzako Moodle plataforman txertatu ditudan baliabideak eta jarduerak. Baliabide eta jarduera horiek erabiltzeko, Moodle plataformako ikastaro batean berreskuratu beharko da fitxategia.

Dena den, hemen eskaintzen diren baliabideak banaka eta isolatuta erabiltzea ere badago. Izan ere, baliabide guztiak publikoak dira, eta dagozkien plataformetan txertatu dira (Youtube, Kahoot!...). Bestalde, Moodle ikastaro honetako galdera-bankua eskuragarri dago [Wiris STEM Collection](https://stemcollection.com/home/eu) plataforman (<https://stemcollection.com/home/eu>).


Oinarrizko aljebra ikastaroa: baliabideak eta jarduerak

Hona hemen Moodle ikastaro honetako baliabideak eta jarduerak:

Berrien foroa

Gaia 1

Oinarrizko aljebra



1 TEORIA

- Oinarrizko aljebra (Power Point aurkezpena) **1**
- Sarrera: zer da aljebra eta zer dira adierazpen aljebraikoak (bideoa) **2**
- Monomioak: esanahia eta ezaugarriak (bideoa)
- Monomioak: batuketak eta kenketak (bideoa)
- Monomioak: biderketak eta zatiketak (bideoa)
- Polinomioak: esanahia eta ezaugarriak (bideoa)
- Polinomioak: batuketak eta kenketak (bideoa)
- Polinomioak: biderketak (bideoa)
- Polinomioak: biderkadura nabarmenak (bideoa)
- Polinomioak: biderkagai komuna ateraketa (bideoa)

2 GALDETEGIAK

- Oinarrizko aljebra buruzko galdetegi I (31 galdera) **3**
- Oinarrizko aljebra buruzko galdetegi II (20 galdera)

3 KAHOOT!

- Nola erabili KAHOOT! ikasleekin (irakasleentzat) **4**
- KAHOOT: sarbidea ikasleentzat
- KAHOOT: sarbidea irakasleentzat

4 KANPOKO LOTURA INTERESGARRIAK

BERREKETAK LANITZKO ARIKETAK **5**
(www.thatquiz.org)

- Biderketa berreketa moduan adierazi I (10 galdera)
- Biderketa berreketa moduan adierazi II (20 galdera)
- Berrekizun berdinek berreketen biderkaketak (10 galdera)
- Berrekizun berdineko berreketen biderketa II (20 galdera)
- Berrekizun berdineko berreketen zatiketak (10 galdera)
- Berrekizun berdineko berreketen zatiketak II (20 galdera)
- Berreketa baten berreketa (20 galdera)
- Denetarik (50 galdera)

ARIKETAK ADIERAZPEN ALJEBRAIKOENKIN
(www.thatquiz.org)

- Laburtu adierazpena (20 galdera)
- Laburtu adierazpena: banatze propietatea (20 galdera)
- Biderkagai komuna ateraketa (20 galdera)

JESUS GORROÑOREN ARIKETA INTERAKTIBOAK **6**
(www.euskalnet.net/jesusgo/index.html)

- Adierazpen aljebraikoekin jolasean
- Monomioekin jolasean
- Polinomioekin jolasean

ANAYA DIGITALEKO ARIKETAK **7**


- DBHko 2. mailako aljebra gaiko ariketak

Bilatu foroetan

Joan


Bilaketa aurreratu

8 THATQUIZ.ORG



MATEMATIKA ARIKETAK

9 JESUSGO



Matematika

JOLASTU ETA IKASTI

Aurreko irudian ikusten den moduan, ikastaroak lau atal nagusi ditu:

1 **TEORIA:** landutako gaiaren teoria guztia, bi formatutan:

- **Power Pointeko aurkezpena** ¹: irakasleak erabiltzeko prestatua. Ikastaroaren teoria guztia azaltzeko balio du.
- **Bideoak (9)** ²: ikasleek erabiltzeko pentsatuak, gaiaren azpiatalak banaka landu ditzaten. Horretarako, bideo formatuan grabatu da aurreko Power Point aurkezpena, eta 9 zatitan banatu, azpigaika.

2 **GALDETEGIAK** ³: Moodle plataformak eskaintzen dituen jarduerak dira galdetegiak, eta ikasitakoa lantzeko eta ebaluatzeko erabiltzen dira. Ikastaro honetan bi galdetegi sortu dira: lehenengo galdetegi 31 galderakoa da, eta bigarrena, 20 galderakoa.

Galdetegietako galderak (eta galdetegietan erabiltzen ez diren beste batzuk ere bai) Moodle plataformako galdera-bankuan daude, eta beste galdetegi batzuk sortzeko ere erabili ditzake irakasleak.

Galdera-bankua

Aukeratu kategoriatik: ALJEBRA (85)

Erakutsi galderaren testua galdera-zerrendan
Bilaketarako aukerak ▾
 Erakutsi galderak azpikategoriatik ere
 Galdera zaharrak ere erakutsi

Sortu beste galdera bat...

Oria: 1 2 3 4 5 (Hurrengoa)

<input type="checkbox"/>	T ↑	Galdera	Nork sortua Izena / Deitura	Nork aldatua azkenengoz Izena / Deitura
<input type="checkbox"/>	Adierazi monomioaren maila, koefizientea eta letrazko zatia	Alfonso Romera	Alfonso Romera	
<input type="checkbox"/>	Biderkadura nabarmena $(ax + b)$ ber 2	Alfonso Romera	Alfonso Romera	
<input type="checkbox"/>	Biderkadura nabarmena $(ax + b) \cdot (ax - b)$	Alfonso Romera	Alfonso Romera	
<input type="checkbox"/>	Biderkadura nabarmena $(ax - b)$ ber 2	Alfonso Romera	Alfonso Romera	
<input type="checkbox"/>	Kalkulatu zenbakizko balioa (taula)	Alfonso Romera	Alfonso Romera	
<input type="checkbox"/>	Kalkulatu zenbakizko balioa $(a + by - cx \text{ ber } 3 + dy)$	Alfonso Romera	Alfonso Romera	
<input type="checkbox"/>	Kalkulatu zenbakizko balioa $(ax \text{ ber } 2 - ax - by - cx + cx \text{ ber } 2 - dy)$	Alfonso Romera	Alfonso Romera	
<input type="checkbox"/>	Kalkulatu zenbakizko balioa $(ax \text{ ber } 2 - by \text{ ber } 2 - cx + dy)$	Alfonso Romera	Alfonso Romera	
<input type="checkbox"/>	Kalkulatu zenbakizko balioa $(ax \text{ ber } 2 - by \text{ ber } 2 - cx + dy)$	Alfonso Romera	Alfonso Romera	
<input type="checkbox"/>	Kalkulatu zenbakizko balioa $(ax - by - cx + dy)$	Alfonso Romera	Alfonso Romera	
<input type="checkbox"/>	Laburtu $-ax + by + cx + dy$ (zatikiak)	Alfonso Romera	Alfonso Romera	
<input type="checkbox"/>	Laburtu $-ax + by - cx + dy$	Alfonso Romera	Alfonso Romera	
<input type="checkbox"/>	Laburtu $-ax - by + cx - dy$	Alfonso Romera	Alfonso Romera	
<input type="checkbox"/>	Laburtu $-ax - dy - cx - cy$ (zatikiak)	Alfonso Romera	Alfonso Romera	
<input type="checkbox"/>	Laburtu $ax \text{ ber } 2 - ax - by - cx + cx \text{ ber } 2 - dy$	Alfonso Romera	Alfonso Romera	

Galdera-bankuko galdera guztiak, hain zuzen ere, Moodle plataforman integratuta datorren Wiris Quizzes baliabidea erabilita sortu dira. Baliabide horri esker, ikasleek jasotzen dituzten galderak ez dira errepikatzen, nahiz eta eredu edo patroi jakin batzuk jarraitzen dituzten; izan ere, aldagaiei ausazko balioa ematen die Wiris Quizzesek.

3 **KAHOOT!:** ikasleekin erabiltzeko 35 galderako galdetegi, KAHOOT! plataforman sortua.

Atal honetan, Kahoot! plataformarako sarbidea ez ezik, plataforma erabiltzeko laguntza ere eskaintzen da:

- **Kahoot! plataformarako sarbidea:** ikasleak eta irakasleak Kahoot! plataforman sartzeko bidea.
- **Kahoot! erabiltzeko laguntza** ⁴: tutoretza-bideo bat eta bi eskuliburu.

4

INTERNETEKO BALIABIDE ERABILGARRIAK: gaia lantzeko Interneten aurkitutako baliabide aproposak.

- **THATQUIZ.ORG** ⁵: web-orri honetako baliabideak erabili, eta zenbait galdetegi sortu dira.
- **JESUS GORROÑOREN ARIKETA INTERAKTIBOAK** ⁶: Jesus Gorroño irakaslearen web-orriko zenbait baliabidetarako lotura.
- **ANAYA DIGITALEKO ARIKETAK** ⁷: Anaya Digitaleko ariketa interaktiboetarako lotura.

Azkenik, eskuin aldeko zutabeko bi blokeetan, bi web-orri daude eskuragarri (lasterbideak): thatquiz.org ⁸ eta Jesus Gorroñoren ⁹ web-orria.